# Larrotxeneko azken bideo ekoizpenak ikusgai

Intxaurrondoko Larrotxene kultur etxean ekoitzitako bideoen erakusketa amaitzear da. Ostiralean, hilak 13, 20.00etatik aurrera, "Kameraren atzean" ikastaroetan egindako lanak eskainiko dituzte Larrotxenen. "Blanco y negro", "Full", "Mareas vivas", "Los temores confluyen" eta "Familia Swosnack" dira ikusi ahal izango diren film laburrak.



Mischkowski eta Kai Maria Steinkuehler zinemagileen "Westend" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

### Bideo-foruma

- Fabian Bielinsky zinema zuzendariaren "Nueve reinas" filma. Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, 18.45ean.

## Asteartea 17

### Musika-hitzaldia

- Bageraren Astearte Kulturalak: kantuz lagundutako hitzaldia eskainiko dute Pantxoa eta Peiok. Koldo Mitxelena kulturunean, 19.00etan.

### Kontzertuak

- "Keinu hutsal batzuk" antzezlana. Egiako Gazteszenan, 20.30ean.

### Haur antzerkia

- Trikitiklaun taldeak "Abere musikariak" ikuskizuna eskainiko du Intxaurrondo Berri kultur etxean, 18.00etan.

### Zinema

- Zinema Alemaniar Berria. Christian Petzold zinemagilearen "Die Innere Sicherheit" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

## Asteazkena 18

### Zinema

- Zinema Alemaniar Berria. Andreas Dresen zinemagilearen "Halbe Treppe" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

### Antzerkia

- "Gestos para nada". AETko ikasturte amaierako antzezlana. Egiako Gazteszenan, 20.30ean.

### Kontzertua

- "Il trionfo dell' onore" (Scarlatti). Musikeneko ikasleek eskainia, Dani Ugalderen zuzendaritzapean. Miramar Jauregian, 20.00etan.

## Osteguna 19

### Zinema

- Zinema Alemaniar Berria zikloa. "Next Generation 2003": film labur hautatuak. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

### Kontzertuak

- David Tavares. Bulebarreko Altxerri tabernan, 22.00etan.
- P3Z musika taldearen emanaldia Parte Zaharreko Etxekalte aretoan, 01.00etan.

## Ostirala 20

### Zinema

- Gau:on. Gau laburra eta aknea: "Des anges", "El viaje", "O mikros indianos", "The Making of a Prodigy" eta "Lian Ge Xia Tien" film laburrak eskainiko dira Antzoki Zaharrean, 00.00etan.

## Larunbata 21

### Antzerkia

- "Yo fui actor en tiempos de Franco" antzezlana Antiguako Lugaritz kultur etxean, 20.00etan.

## Igandea 22

### Haur antzerkia

- Trikitiklaun taldeak "Abere musikariak" ikuskizuna eskainiko du Altzako Casares kultur etxean, 18.00etan.

# Iron Maiden, heavy nilezkorra

Iron Maiden musika talde heavy mitikoak kontzertu ikusgarria emango du gaur, hilak 13, Ilunbeko zezen plazan. Bruce Dickinson abeslaria buru duen taldeak, azken diskoaren kantuak ez ezik, musika ibilaldi luzeko abestirik arrakastatsuenak ere eskainiko ditu. Iron Maiden agertokira igo aurretik, Murder Dolls taldea hasiko da gitarrak astintzen. Doinu gogorren maitaleek huts ezineko zita duzue gaur Ilunben, 20.45etik aurrera.





# "The Godfather" miresteko parada Ernest Lluchen

Francis Ford Coppola handiaren "The Godfather" maisulana proiektatuko dute larunbatean, hilak 14, Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, 16.45etik aurrera. Mario Puzo idazlearen eleberri ezagunena oinarri harturik, mafiari buruz sekula egindako filmik ederrena erdietsi zuen Coppolak. Film onenaren Oscar sariaz gain, beste bi ere bereganatu zituen. Nino Rotaren musika Marlon Brandoren interpretazioa bezain zirraragarria da.